Bestelako Xedapenak

HERRIZAINGO SAILA

5821

EBAZPENA, 2010eko azaroaren 9koa, Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita handitu egin dela Herrizaingoko sailburuaren 2010eko martxoaren 3ko Aginduan aurreikusitako laguntzetara bideratutako kreditua, 2010eko ekitaldirako. Agindu horren bidez, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan xedatutako diru laguntzak genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeei eman eta ordaintzeko prozedura ezarri zen.

2010eko martxoaren 8ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (45. zk.) argitaratu zen Herrizaingoko sailburuaren 2010eko martxoaren 3ko Agindua. Agindu horren bidez, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan xedatutako diru-laguntzak genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeei eman eta ordaintzeko prozedura ezarri zen.

Agindu horren Lehenengo Xedapen Gehigarriak –Finantzaketa eta aurrekontuen egozpena– honela dio: «Ordainketak aurreratu eta publizitatearen printzipioa bete ahal izateko, Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendariak ekitaldi bakoitzaren hasieran emango du jakitera, ebazpen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako esleitu den zuzkidura».

2010eko martxoaren 3ko Aginduaren Bigarren Xedapen Gehigarriak –2010eko ekitaldirako Aurrekontuko Zuzkidura– honela dio: «Agindu honetako lehenengo Xedapen Gehiarriaren lehenengo paragrafoan ezarritakoa betetze aldera, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan 230.000 euro jarri dira 2010eko ekitaldian laguntza hauek ordaintzeko».

Nolanahi ere, aurrekontu-ekitaldi batean egiten diren eskabideei ezin bazaie erantzun ekitaldi horretako aurrekontu-kredituen bidez, adierazitako xedapen gehigarriak aurreikusten du badagoela aukera zenbateko hori aldatzeko, betiere, eskatutako laguntzen guztizko kopurua kontuan hartuta.

2010eko abuztuaren 13ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (155.zk) argitaratu zen Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendariaren

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

5821

RESOLUCIÓN de 9 de noviembre de 2010, de la Directora de Atención a las Víctimas de la Violencia de Género, por la que se da publicidad a la ampliación del crédito para el ejercicio 2010 destinado a las ayudas previstas en la Orden de 3 de marzo de 2010, del Consejero de Interior, por la que se establece el procedimiento de concesión y pago de la ayuda económica a las mujeres víctimas de violencia de género prevista en el artículo 27 de la Ley Orgánica 1/2004, de 28 de diciembre, de Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género.

En el Boletín Oficial del País Vasco n.º 45, de 8 de marzo de 2010, se publica la Orden de 3 de marzo de 2010, del Consejero de Interior, por la que se establece el procedimiento de concesión y pago de la ayuda económica a las mujeres víctimas de violencia de género prevista en el artículo 27 de la Ley Orgánica 1/2004, de 28 de diciembre, de Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género.

En su Disposición Adicional primera, relativa a la Financiación e Imputación Presupuestaria, se indica que: «al objeto de posibilitar el anticipo de los citados pagos y dar cumplimiento al principio de publicidad, por Resolución de la Directora de Atención a las Víctimas de la Violencia de Género se hará pública, al comienzo de cada ejercicio presupuestario, la dotación asignada al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco».

Según señala la Disposición Adicional Segunda de la Orden de 3 de marzo de 2010, relativa a la Dotación Presupuestaria para el ejercicio 2010, «a los efectos del cumplimiento de lo previsto en el párrafo primero de la Disposición Adicional Primera de esta Orden, la dotación presupuestaria asignada en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco para el ejercicio del año 2010 para el pago de las ayudas previstas en la misma asciende a 230.000 euros».

No obstante, si en un ejercicio presupuestario hubiere solicitudes que no puedan ser atendidas con los créditos presupuestarios de dicho ejercicio, la citada disposición adicional prevé la posibilidad de modificar dicho importe teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas.

En el Boletín Oficial del País Vasco n.º 155, de 13 de agosto de 2010, se pública la Resolución de 19 de julio de 2010, de la Directora de Atención a las

2010eko uztailaren 19ko Ebazpena. Ebazpen horretan ezagutarazten da 2010eko ekitaldirako kredituak ehun eta berrogeita hamar mila (150.000) euroko gehikuntza duela; hain zuzen, genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeei diru-laguntzak eman eta ordaintzeko prozedura ezarri duen Herrizaingo Sailaren 2010eko martxoaren 3ko Aginduan aurreikusitako laguntzetarako. Laguntza horiek Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusita daude.

Herrizaingo Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretuaren 10.1.c artikuluak ezartzen du Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendariari dagokiola genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeei laguntzak eman eta ordaintzeko izapideak egitea eta ebaztea. Laguntza horiek Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusita daude.

Gaur egun, batetik, aurkeztu arren ukatuak izan diren laguntza-eskabideen kopurua, eta bestetik, onuradun posibleen beharrak ikusita, beharrezkoa da helburu horretarako zuzendutako aurrekontu-zuzkidura 2010eko ekitaldian zehar bigarren aldiz handitzea.

Era horretan, abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretuan xedatutakoa betez, 2010eko martxoaren 3ko Aginduaren Lehenengo Xedapen Gehigarrian adierazten den habilitazioa kontuan hartuta eta erabilgarri dagoen aurrekontuaren arabera, premiazkoa da aurrekontua handitzea, zehazki, hirurogeita hamabost mila (75.000) euro gehitzea.

Ondorioz, hau

EBATZI DUT:

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntza ekonomikoak emateko dagoen aurrekontuari hirurogeita hamabost mila (75.000) euro gehitu zaizkiola jakinaraztea. Laguntza horiek Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusita daude.

Eta horretarako, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko azaroaren 9a.

Genero Indarkeriaren Biktimei
Laguntzeko zuzendaria,
MARIOLA SERRANO ARGÜESO.

Víctimas de la Violencia de Género, se da publicidad a la ampliación del crédito en ciento cincuenta mil (150.000) euros para el ejercicio 2010 destinado a las ayudas previstas en la Orden de 3 de marzo de 2010, del Consejero de Interior, por la que se establece el procedimiento de concesión y pago de la ayuda económica a las mujeres víctimas de violencia de género prevista en el artículo 27 de la Ley Orgánica 1/2004, de 28 de diciembre, de Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género.

El Decreto 471/2009, de 28 de agosto, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Interior, establece en su artículo 10.1.c que corresponde a la Directora de Atención a las Víctimas de la Violencia de Género, tramitar y resolver la concesión y pago de ayudas económicas a las mujeres víctimas de violencia de género, previstas en el artículo 27 de la Ley Orgánica 1/2004, de 28 de diciembre, de Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género.

En la fecha actual, dado el volumen de las solicitudes de ayudas que se han presentado y no han podido ser atendidas, así como las necesidades de las posibles beneficiarias, resulta necesario ampliar la dotación presupuestaria destinada a tal fin por segunda vez durante el ejercicio 2010.

De este modo, en virtud de lo dispuesto en el Decreto 471/2009, de 28 de agosto, y considerando la habilitación proporcionada por la mencionada Disposición Adicional Primera de la orden de 3 de marzo de 2010 y la disponibilidad presupuestaria existente, se hace preciso un incremento de las disponibilidades presupuestarias por importe de setenta y cinco mil (75.000) euros.

En su virtud,

RESUELVO:

Dar publicidad al incremento de las disponibilidades presupuestarias para la concesión de ayudas económicas a las mujeres víctimas de violencia de género prevista en el artículo 27 de la Ley Orgánica 1/2004, de 28 de diciembre, de Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género por un importe de setenta y cinco mil (75.000) euros.

A tales efectos se ordena la publicación de la presente Resolución en el Boletín del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 9 de noviembre de 2010.

La Directora de Atención
a las Víctimas de Violencia de Género,
MARIOLA SERRANO ARGÜESO.